

BEROJAN PROIEKTUAREN MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Berojan proiektuaren merkatuaren segmentazioa honakoa da: gure xede-bezeroak janari beroa azkar eta eguneko 24 orduetan behar duten pertsonak dira. Bereziki ikasleak (ikasle-erresidentzietan bizi direnak), gimnasioetako erabiltzaileak, txandakako ordutegia duten langileak, ospitaleetako langile eta bisitariak, eta autobus edo tren geltokietako bidaiariak dira. Bezero hauek denbora gutxi izaten dute, zerbitzu erraza eta azkarra baloratzen dute, eta ukipen-pantaila bidez produktua aukeratzeko eta bai txartelarekin bai efektiboan ordaintzeko aukera izatea garrantzitsua da haientzat. Kokapen estrategikoetan egotea eta une oro janari beroa eskuratzeko aukera izatea da haien beharrik nagusiena; horregatik, Berojanen merkatu mota merkatu segmentatua da, bezero talde ezberdinak izan arren guztiek behar komun bera partekatzen dutelako.